



Bidasoa - Txingudi

MUGAZ GAINDIKO GRAFITI LEHIAKETA "EGUNSENTIA EDO ILUNABARRA TXINGUDIKO BADIAN" BIDASOA-TXINGUDI 2017

Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko partzuergoak 2017ko mugaz gaindiko "Egusentia edo ilunabarra Txingudiko badian" grafiti-lehiaketa berria deitu du. Honako oinarri hauek ezarri dira lehiaketarako:

OINARRIAK

PARTE-HARTZAILEAK:

1.- LEHIAKETA honetan, nahi duten artista gazteek parte hartu ahal izango dute, 2017ko urriaren 31ean 16tik 30era bitarteko urteak beteta badituzte; eta ez da herritartasun- edo naziotasun-mugarik izango.

BALDINTZAK:

2.- Lehiaketan parte hartzen duen bakoitzak gehienez ere BOZETO BAKARRA aurkeztuko du, tamaina txikikoa, Bidasoko Interpretazio Zentroaren sarrerako pertsianan GRAFITI bat egiteko proposamena izango dena. Proposamenak SINADURARIK GABE aurkeztu beharko dira gutun-azal itxi batean. Gutun-azal horretan, marrazketa-paperean egindako bozetoaz gainera, orri bat ere sartu beharko da, egilearen izen-abizenak, bere jaiotze data, harremanetarako datuak (helbidea, posta elektronikoa eta telefonoa) eta egiazko tamainan egiteko zer material behar duten adieraziz. Hutsegite batengatik bozetoa sinatuta aurkezten bada, sinadura ezkutatu egingo da epaimahaiak baloratzeko prozesu osoan.

3.- Bozetoa tamaina txikian egingo da, NEURRI BAKARREAN: 24 cm-ko altuera eta 32 cm-ko zabalera, marrazkirako paperean edo antzekoa eta koloretan eta paisaia-formatuan bakarrik aurkeztu ahal izango da.

4.- Hautatzen den bozetoa hilabeteko epean egin beharko da benetako tamainan, epaimahaiaren erabakia jakinarazi ondoren, Bidasoko Interpretazio Zentroan. 3 metroko altuera eta 4 metroko zabalera izango ditu gehienez ere, eta lehiaketako antolatzaileek horretarako erositako materialarekin egingo da.

IRIZPIDEAK:

5.-Bidasoko Interpretazio Zentroan bertan Bidasoko biotopoari buruzko sail bat ere dagoenez gero, NAHITAEZKO erreferentziak izango dira, Txingudiko badian eguna argitzen edo iluntzen margotzerakoan.

SARIA:

6.- SARI bakarra emango zaio lehiaketa irabazten duen proposamenari: 200 (berrehun) euro.

AURKEZTEKO EPEA:

7.- 2018ko martxoaren 28rako, egun hori barne, aurkeztu beharko dira bozetoak, oinarriak Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu ondoren, Bidasoko Interpretazio Zentroan (Iparralde hiribidea 63 – Irun, Aduanako eraikin zaharra, oinezkoentzako nazioarteko zubiaren ondoan), asteartetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara; edo Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren egoitzan (Kostorbe eraikina, 1. solairua, Iparralde hiribidea z.g.-Irun), astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30era, edo astelehenetik ostegunera 16:00etatik 18:30etara. Aurkeztu izanaren agiria emango da bertan.

EPAIMAHAI:

8.- Epaimahaia, Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa osatzen duten *hiru udalerrietako Zuzendaritza Batzordeko ordezkariak* osatuko dute (Irun, Hondarribia, Hendaia). Partzuergoko talde teknikoko kide bat izango da idazkaria, hitza duela baina botorik ez. Epaimahai horrek bozeto 1 hautatuko du, tamaina txikikoa, Bidasoko Interpretazio Zentroaren sarrerako pertsianan benetako tamainakoa egiteko. Irabazleak inaugurazio-egunean jasoko du SARIA.



Bidasoa - Txingudi

ERABILPENA:

9.- Bozeto irabazlea eta benetako tamainan egindakoa Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko Partzuergoaren, Bidasoa bizirik Bidasoko Garapen Agentziaren, Hondarribiko, Irungo eta Hendaiaiko turismo-bulegoen eta Irungo, Hondarribiko eta Hendaiaiko udalen irudi-bankuan sartuko dira.

JABETZA:

10.- Mugaz gaindiko partzuergoa bihurtuko da bozeto irabazlearen eta benetako tamainan egindakoaren jabea, eta egoki ikusten bezala eta ondorio guztietarako erabili ahal izango ditu.

BOZETOAK ITZULTZEA:

11.- Aurkeztutako bozetoak Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoaren egoitzan (Kostorbe eraikina, 1. solairua, Iparralde hiribidea z.g.-Irun), astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 14:30era, edo astelehenetik ostegunera 16:00etatik 18:30etara jaso ahal izango dira, 30 egun balioduneko epean, epaimahaiaren erabakiaren ondoren. Horren hartu-agiria emango da. Interesdunei jakinaraziko zaien epe hori igaro ondoren, antolakuntzak ez du erantzukizunik izango hartu ez diren bozetoen gainean, ez galtzen badira, ez kalterik jasaten badute, eta bere irizpidearen arabera erabili ahal izango ditu.

ONARPENA:

12.- Lehiaketa honetan parte hartzeak berekin dakar Oinarri guztiak onartzea eta Epaimahaiaren erabakiekin ados egotea, eta baita erreklamatzeari uko egitea ere. Bestalde, Partzuergoko Presidenteak ahalmena izango du aurreikusi ez den edozein gai erabakitzeko.

ARGITARATZEA:

13.- Oinarri hauek jendaurrean ikusgai jarriko dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Partzuergoaren egoitzako iragarki-taulan eta Bidasoko Interpretazio Zentroko hallean, oinarriak onesten diren datatik, bozetoak aurkezteko adierazitako epea amaitu arte.

14.- Era berean, Bidasoa-Txingudi eskualdeko komunikabideen bidez hedatuko da informazioa, eta baita elkarleen edo mugaz gaindiko partzuergoa osatzen duten hiru hirietako (Irun, Hondarribia eta Hendaia) udalen edo intereseke beste erakunde batzuen bidez.

BESTE BATZUK:

15.- Baztertu egingo da lehiaketaren oinarrietan adierazitako betekizunak betetzen ez dituen edozein bozeto.

16.- Lehiaketa hutsik geratuko da aurkeztutako lanen kalitatea gutxiegitzat jotzen bada edo lanik aurkezten ez bada.

17.- Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoarekin bat etorritz, parte-hartzaileen datuak kudeatzeko artxibo espezifiko batean sartuko dira datu pertsonalak, lehiaketa izapidetzeko eta erakusketa antolatzeke. Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa da artxibo horren erantzulea.

INFORMAZIOA:

Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaindiko Partzuergoa, Iparralde hiribidea z.g. -Kostorbe eraikina- 20302 Irun, Tel.: +34 943 63 39 63

Bidasoko Interpretazio Zentroa, Iparralde hiribidea 63 - Irun- Aduanako eraikin zaharra, oinezkoentzako nazioarteko zubiaren ondoan, Tel.: +34 943 50 58 26

e-maila: consorcio@bidasoa-activa.com

Web: www.irunhondarribiahendaye.com

Hondarribian, 2017ko abenduak 15 .

PRESIDENTEA,
Txomin SAGARZAZU ANCISAR jn.

